

Aurten ere, Gorbeialdeko bost ikastetxetan aritu gara bertsoan

Iñaki Viñaspre aritu da kurtso honetan zehar GU ERE BERTSOTAN programa lantzen gure eskualdeko bosgarren eta sei-garren mailatan. Bertsoak eza-gutzeko, egiteko, moldatzeko... aukera izateaz gain, aitzakia ederra izan da hizkuntzarekin jolasteko. Oso balorazio positiboak jaso ditugu ikasle, guraso zein irakasleengandik.

Ikastetxe, Kuadrilla eta eus-kara elkarteen babesa jaso du proiektu honek.

GU ERE BERTSOLARI programa "Bertsolaritzaren Curriculum" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZKUNTZA eta TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK.**



Gorbeialdeko BERTSO ESKOLAK

ARAMAIO

GAZTEEN TALDEA (16-18 urte): Asteartetan. Ordutegia: 18:30-19:30. Irakasle: Paula Amilburu

HAURREN TALDEA (10-12 urte): Ostiraletan. Ordutegia: 16:00-17:00. Irakasle: Paula Amilburu

LEGUTIO

GAZTEEN TALDEA (13-15 urte): Asteazkenetan. Ordutegia: 16:00-17:00. Irakasle: Iñaki Lertxundi

HAURRAK (10-12 urte): Ostiraletan. Ordutegia: 16:30-17:30. Irakasle: Egoitz Iradier

URKABUSTAIZ

HELDUEN TALDEA: Izarran, asteleheneretan. Ordutegia: 20:30-22:00. Irakasle: Abel Enbeita



MURGIA

GAZTEEN TALDEA (15-17 urte): Asteazkenetan. Ordutegia: 15:30-16:30. Irakasle: Unai Mendibil

Gorbeialdeko umeen TOPAKETA

Maiatzaren 11n, Gopegin, ospatu genuen Gorbeialdeko haurren topaketa. Bertan, Gopegi, Legutio, Aramaio, Izarra eta Murgiako ikastetxeek hartu zuten parte.

Eguraldia lagun, giro ederrean ekin zioten gaztetxoek jolasari. Goizean, elkar ezagutu eta elkarrekin jolasteko aukera eduki genuen. Arratsaldean, Zigoitiako kultur etxeko aretoan sartu eta kantatzeari ekin genion.

Bakoitzak bereak bota eta besteenak entzun ostean, bakoitzak bere eskolara buelta egin genuen, hurrengo urteko topaketaren zain, aurtengoak utzitako aho zapore goxoaz.

ARABAKO BERTSO TXAPELKETA berria

Aldaketa ugariarekin heldu zen aurtengo Bertsolari txapelketa. Aurrekanporaketetatik soilik 18 bertsolari sailkatzea izan zen erabakia. Kanporaketak kendu eta finalurrekoak bi errondetan burutzea erabaki baitzen.

Azken urteetako txapelketa gazteena izan da. Urtarrilaren 25ean ekin genion txapelketari, Dulantzin. Beste bost finalurreko jokatu ziren: Legutio, Laudio, Aramaio, Zigoitia eta Langraiz-Okan. Saio ederrak izan ziren, lehen txapelketa zutenek paper ederra bete zuten eta aurretik ibilitakoe euren maila erakutsi zuten.

Finalerako zita maiatzaren 21erako jarri genuen. Egun horretan oholitza gainean: Oihane Perea, Ruben Sanchez, Xabi Igoa, Zigor Enbeita, Iñaki Viñaspre eta Manex Agirre bertsolariak eta Marta Ugarte eta Aintzane Irazusta gaiak jartzeko prest. Entzuleek ederki bete zuten Printzipal



Antzokia euren txalo eta animoekin.

Saioan zehar ale ederrak utzi zituzten bertsolariek. Fin aritu ziren guztiak, baina buruz burukoan aritzeko hautatuak bi izan ziren: Manex Agirre eta Iñaki Viñaspre. Bigarren fase bizia eskaini ziguten.

Lanak amaituta, Manex Agirre txapeldun atera zen Printzipaletik.

**GORA GORBEIALDEKO
BERTSOLARI, GAI
JARTZAILE eta EPAILEAK!**

SAIOAK lagin txiki bat

Gorbeialdean egin diren saio batzuk:

- 2014-09-27: Elosun, jaietan plaza librean
- 2014-10-11: Aramaion, bertso bazkaria
- 2014-11-22: Legution, bertso bazkaria
- 2014-12-04: Murgian, bertso afaria
- 2015-01-10: Legutio, jaialdia
- 2015-02-28: Zigoitian, Arabako Bertso txapelketa
- 2015-03-13: Bitorianon, Korrika kulturala
- 2015-05-30: Aramaion, bertso poteoa



Saio hauek gain, asko geratzen zaizkigu gozatzeko.

Adi egon! Ez itzazu galdu!

Eskolartekoa

Maiatzaren 8an eman zitzaion hasiera Arabako Bertso-eskolartekoari eta bitarte honetan hiru kanporaketa burutu dira bi adin tartetan, 14tik beherakoak, eta 14 eta 18 urte bitartekoak; bi modalitatetan, bertso jarriak eta bat-batean. Topaketak Gasteizen, Zaldudon eta Aramaion burutu dira, orotara Gorbeialdeko, Gasteizko, Lautadako eta Mendialdeko haur eta gazteak aritu direlarik. Denera 60 bat haur eta gazte aritu dira aurtengo edizioan.

Finala Kanpezun, bertaratutako haur eta gaztetxoek, bertsozaleen, bertso-eskoletako lagunen eta etxeen gozagarri. Bertso sortek ireki zuten kultur etxean hasi zen bertso festa. Kanpezuko bertso-eskolako txikiak izan ziren lehenak oholtzara igotzen, eta ederki piztu zuten giroa. Horien ondotik Aramaioko bertso-eskolakoek parodia ederra prestatu zuten.

Irribarrea ahoan oholtzaratu ziren Markel Yoller, Irati Ruiz de Pinedo, Peru Abarrategi, Unai Etxenausia, Peru Amorrortu eta Unai Argote. Irribarrez baina bertsoaren euren onena emateko prest. Zortziko nagusian zein txikian saio arinak eta umore ukitu ederrekin eskaini zizkiguten. 60 entzuleren aurrean, saio orekatua eta bizia osatu zuten ofizioa. Ondoren bakarkako txanda iritsi zen, puntuari erantzun eta hitzari bertso bat bota beharra. Entzulek gogoz txalotu zuten sei bertsolarien ahalegina eta ale ederrak entzuteko parada izan zuten bertaratutako guztiek.

Epaimahaiak, hala erabakita, Peru Abarrategik irabazi zuen finala. Hemendik aurrera, edizio batetik bestera, eskuz esku pasatuko den saria jaso zuen. Gasteizko Peru Amorrortuk bigarren postua lortu zuen. Biak izango dira Orion Ekainaren 27an izango den Euskal Herriko eskolarteko txapelketako finaleko Arabako ordezkariak, herrialdeko bertso-eskolako gazte eta haur guztiek egindako ahaleginaren erakusgarri bikainak.

Bat-bateko saioa amaituta, eguraldi ona lagun, kalejiran abiatu ziren haur, gazte eta gurasoak kalean barna. Alboka, pandero eta puntuatu gabeko bertsoek hartu zuten kalea. Herriko plazan herri bazkari goxoa izan zuten eskerroneko sari. Bazkalostean bertso-showak eskaini zituzten Kanpezuko eta Aramaioko bertso-eskoletako gazteek. Egunari amaiera bikaina emateko, dantza plazan.

Zatoz Arabako bertsolariak animatzera Euskal Herriko Eskolarteko txapelketara!!

Orion Ekainaren 27an izango da

EskolartekoA argazkitan



Eskolarteko txapelketako irudi batzuk dituzue hemen. Alde batetik, Gorbeialdeko kanporaketa, Aramaion ospatutakoa. Beste aldetik, Kanpezuko finala.

ABEren txosna

Iazko esperientzia eta gero, Arabako Bertsozale Elkarteak prest dago. Aurten ere, Entxosnatuko gara.

Beraz, badakizue, zuen zain edukiko gaituzue Gasteizko jaietako Txosnagunean: trago bat hartu, zeozer jan, indarrak hartu... dena ez da bertsoa izango!! Bertsoak entzuteko parada izango den arren... adi egitarauari.

ENTXOSNATU GUREKIN!



Arabako Bertsozale Elkartea
Benito Perez Galdos, z/g, Amaia Zentroa
945 010505/ araba@bertsozale.eus

www.bertsozale.eus/araba
www.bertsoa.eus



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



KULTURA SALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA